

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak presentzialak ez diren kontsultak ezarri ditu Tuterako osasun-eskualdean

*Vera kontseilariak azaldu duenez, helburua familia-medikuen erabakitzeke ahalmena handitzea da*

Martes, 02 de octubre de 2012

Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideak Tuterako osasun-eskualdera zabaldu du 'Presentziala ez den kontsulta' Lehen Mailako Arretako familia-medikuntza eta pediatriako profesionalen artean eta Tuterako Reina Sofía ospitaleko profesionalen artean, alergologia, dermatologia, endokrinologia, kardiologia eta psikiatriako espezialitateetan.

Osasuneko kontseilari Marta Verak, Osasunbideako zuzendari-gerente Ángel Sanz-en eta Reina Sofía ospitaleko zuzendari Juan Ramón Rábade-ren laguntzarekin egiaztatu du lan-metodo horren funtzionamendua, eta irailaren 17tik, astelehena, abian dena Iruñea (2005 etik) eta Lizarrako osasun-eskualdeetan eskaintzen diren espezialitate berberetarako.

Funtsean, pazienteen prozesuari buruzko iritzi-trukaketa batean datza (zalantzazko egoerak erabakitzea, diagnostikoko kontsultak, jarraipena, tratamendua...) informatizatutako historia klinikoaren bidez eta posta elektronikoen bidez.

Era horretan lortzen da, familia-medikuek erabakitzeke ahalmen handiagoa izan dezaten eta Lehen Mailako Arretatik Arreta Espezializaturako deribazioak nabarmen murriztea. Tuterako eskualdean, helburua Espezializaturako deribazioa bi urtetan % 10ean murriztea da, Vera kontseilariak azaldu duenez.

Gainera, presentziala ez den kontsultari esker, pazienteen jarraipena hobetzen da, bereziki kronikoak eta patologia anitzekoak badira. Lehen Mailako Arretako profesionalek zaintzen ardura bere gain hartzen dute eta dituzten zalantzak espezialistarekin kontsulta ditzakete, pazientea deribatu beharrik izan gabe.

### Kontziliazio farmakoterapeutikoak, probak eta prestakuntza

Bide horrek garrantzi berezia hartzen du zenbait patologia dituzten pazienteen "kontziliazio farmakoterapeutiko"-ari begira. Pazientearen eboluzioan dagoen nobedade baten aurrean, tratamenduetan aldaketak egitea beharrezkoa gerta daiteke eta, beste sendagai batzuekin ez nahasteko, presentziala ez den espezialistarekin egindako kontsultak zalantzak argitzen laguntzen du.

Azkenik, kontsultari esker gainera, proba-eskaera argi daiteke

(familia-medikuek kontsulta dezakete beharrezkoa bada eta, espezialistarengana deribatzea beharrezkoa den kasuan, pazientea kontsultara joango da proba jada eginda duela).

Beste erabilgarritasun batzuk dira, kontsultatutako kasu klinikoetan oinarritutako profesionalen etengabeko prestakuntza, edo beharrezkoak ez diren joan-etorriak saihestea, bereziki baliagarria dena landa-eremuetako pertsonentzat.

### **Presentzialak ez diren 1.700 kontsulta urtean**

Osasun Departamentuko datuen arabera, urtean Nafarroan presentzialak ez diren 1.700 kontsulta egiten dira, hau da, Iruñeko eskualdeko Espezializatura egindako lehen bisita guztien % 3a. Kopuru horretatik, % 39,23 alergologiari dagokio, % 29,19 endokrinologiari, % 18,47 kardiologiari eta % 9,17 osasun mentalari.

Espezialitate horietan, egunero, mediku bakoitzak prozedura horren bidez deribatu daitekeen kasu bakarra izan dezake edo bat bera ere ez. Presentzialak ez diren kontsulten % 69ak Espezializaturako deribazioa saihesten du.